

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Beroak baratzeko laboratzetan fruituak hazten laguntzen du

Klima-egoerek lehorreko larreen eta laborantzen potentzialari eragin diezaioke

Martes, 23 de agosto de 2011

Abuztuaren 12 eta 19 arteko aldiaren egun eguzkitsuak izan ziren nagusi eta baita hego haizea ere; eguneko eta gaueko tenperaturak garai horretarako ohikoak direnak baino altuagoak izan dira, eta ekaitzak ere erregistratu ziren, baina kasu gehienetan euri gutxirekin.

Aste beroa, gehieneko batez besteko tenperaturak 30° C-tik gorakoak izanik, eragin kantauriarra duten eremuetan salbu; azken horietan beroa ez da hainbestearainokoa izan. Hilaren 17an gehieneko balioak 32 eta 38° C artean izan ziren. Gauean tenperatura jaisteak batez bestekoa 20 eta 26° C artean kokatzea ekarri du, hots, neurri historikoen pareko balioetan.

Sargori horrek eta euririk ez egiteak ez diote lehorreko sailari mesederik egiten; hala, bazka eta larreen eskaintza begetatiboa nabarmen mugatzen ari da. Udako laborantzek (artaberdea, berandu datorren patata eta ekiloreak esaterako), une horretara arte izandako potentzial ona klima-egoerek baldintza dezakete.

Ureztatzeko laborantzetan, eguraldi egonkorrari esker bilketa-lanak bizi egin ahal izan dira eta beroak fruituen heldutasunari lagundu diote. Alabaina, tenperatura altuek eta eguzkiak jarraituz gero, loraldia lerratzea eta geldiaraztea ekar dezakete zenbait laborantzatan; beraz, egoera horretan ureztatze-kopurua eta -maiztasuna behar bezala erabiltzea oso garrantzitsua da.